

Parentesiak

Antton Izagirre

Uda badoa eta betor agudo negua. Ez da ni hotz eta euri zalea naizelako, baina uda parteak eguneroko berriketa, albistegi eta eztabaida politikoan utzi digun hustasun eta arinkeria sentsazioak gainditzeko lehenbailehen uda atzera uztea hobe, nahiz eta neguak berekin duen iluna, lana, nekea eta ekaitza.

Ez da oraingoa, ez da berria, uda garaian komunikabideek «udako sugetzararak» sortzeko duten joera eta abilezia. Badirudi pulstu politikoak indarra galtzearekin batera komunikabideak bihurtzen direla parlamentu, ideologo eta kale eragile. Aurtengoan ere, beste horrenbeste.

Nahiz eta negu partean ere, komunikabideek eta sostengatzen dituzten bo-

tere ekonomikoek iritzi publikoa honetara edo hartara bideratzeko ahalmen osoa izan, pentsatu nahi dut –irudipen hutsa eta ustela agian– esku artean ditugun eta eztabaida politikora salto egiten duten berri eta albisteek beste sendotasun eta pisu bat hartzen dutela udatik bueltan.

Ikusi dugu, nolako lehentasuna eman nahi izan zaion pandemiaren azken bolarada honetan, kutsatu eta ospitaleratuen kopuru eta zifra dantzari, kale edanari, horrekin loturiko oldarraldiei eta gau giroan sorturiko zenbait liskarri, arazo politiko larrienen mailara jasoak izan direnean.

Horretan tematu dira diru publikoz sostengatzen ditugun gure gertuko telebista eta irratiak eta hedabide nagusiak.

Udako beroak urtuta edo, gure sen kritikoa ere itzali xamarra izaten dugu, eta lerro editorial horiei jarraitu beste erremediorik ez dugula dirudi.

Ez da zuhaitzak ikustea nahikoa, baxoa ikusteko. Maiz, albiste zenbaitetan azpimarra egiten dutenean, beste hura ezkutatzeko izaten da eta «mozkor borrokaz» eta gau giroko «ukabilkadaz» entretenituta gauzkaten bitartean, herritarrontzat premiazkoak direnak –argindarraren prezioa, osasun arloko ga-beziak, gutxieneko soldata, sakontasun politikoa eskatzen duten politika ausartak– ez dira lerroburu izango; politikari profesionalen kontuak direla esango digute, udako giroaz gozatzeko.

Betor negua, ekarri geurera gihar politikoa, ez soilik futbola. •

Zer da zuentzat I-11

Miren Azkarate
Badiola

Arazoi ezberdineko zenbait gertakari garrantzitsu datozkigu burura I-11 irakurri edo entzuten dugunean. Batetik duela 20 urte dorre bikiak deusezten ikusi genituenekoa datorkit niri, mundua enegarrenez dar-dar batean jarri zuen hegazkinen ekintza hura. Puf! 20 urte!

Bestetik, Katalunian ospatzen duten Diada eguna iradokitzen dit irailak 11k: urtetik urtera jende gehiagok parte hartzen duen aldarrikapen eguna, manifestaldi erraldoiaren irudiak erakusten dizkigun eguna, Kataluniako independentziaren aldeko oihuak entzuten

ditugunak altu eta ozen. Urtetik urtera niri oilo ipurdia eragiten didan eguna da.

Eta azkenik maila pertsonalagoan ziur nago egun horretan norbaiten urtebetetzea edo data seinalatu bat izango dela bere agendan.

Niretzako, hiru adibideetatik koktail bat egin eta bakoitzetik zerbait eragiten didan eguna da, dardara sortzen didan eguna da, oilo ipurdia jartzen didana eta egun seinalatua da: nire atxiloketa eguna. 19 urte! Puf! Atzo izan balitz bezala gogoratzen dudan momentua, iltzatuta dudan unea eta urtero data iristean nire egunerokoa

hankaz gora jartzen didana, nahiz eta, gezurra badirudi ere, hainbeste urte pasatu diren. Gaur-gaurkoz oraindik egun hauetan gorputz txarra izaten dut, gaizki egiten dut lo eta ez dut gogorik izaten inorekin egoteko eta hitz egiteko. Eta zergatik ez onartu, umore txarra izaten dut eta negar asko egiten dut ere. Berdin du egun osoan zehar komunikabideetan matraka ematen egon AEBetan gertatu zenarekin, berdin du nire bizitzako momentu zoriontsu batean egon, berdin du kurtso berria hastearen prestaketak eta errutinak itzuli... Niretzako I-11 beti egongo da torturari lotuta. •